# F

## LABURPEN EXEKUTIBOA

## 1.- Xedea.-

Dokumentu honen xedea da Lurzoruari eta Hiri Birgaitzeari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 25.3 artikulua, eta identifikatutako aginduak aipatzen dituen alderdiak jasotzen ditu.

## 2.- Plan Bereziak agintzen duen Azpieremuaren mugaketa.-

Hiri Antolamenduko Plan Berezi honen xede den eremua Marrutxipi kaleko 45. zenbakian dagoen lurzatiaren azpieremua da, eta 1.148,82 m² - ko azalera du.

Planoetan eremuaren mugaketa ageri da.

## 3.- Plan Bereziaren helmena.-

Plangintza xehatuaren dokumentu honen bidez lortu nahi diren helburuak honako atal hauetan laburbiltzen dira:

.- Azpieremu berri bat mugatzea, Marrutxipi kaleko 45 zk.ko lurzatiari dagokiona, 1.148,82 m²ko azalerarekin.

.- Antolamenduz kanpokotzat jotzea gaur egun lurzatiaren gainean dauden bi eraikinak ( baita bizitegi-eraikinaren atzealdean dagoen erantsia ere ).

.- Lurzatiaren egungo kalifikazio xehatua ordeztea, "a.40. Garapen txikiko bizitegia "," a.30. Eraikin irekiko bizitegia ". Hori da Marrutxipiko 45. zenbakiko bi aldeetan dauden bizitegi-eraikinak hartzen dituzten partzelek duten kalifikazioa.

.- Azpieremuaren zonakatze xehatua arautzea eta antolatzea. Bertan, eraikin berriaz eta hura inguratzen duen partzela pribatu ez eraikigarriaz gain, partzelaren aurrealde osoan ( gaur egun ez dago ) 2,50 metro zabaleko espaloia lagako zaio udal jabari publikoari, oinezkoentzako gune

bat atonduz eta egungo espaloiari jarraipena emanez Marrutxipi aurreko 47. zenbakian. Hark dituenak baino mesedegarriagoak. Halaber, planteatzen da hegoekialdean, lurzoru zati bat ematea, gaur egungo goiko partearekin komunikatzen duen pasabidea zabaltzeko eta parke publiko txiki berri bat sortzeko

.- Azpieremua eraikigarritasun haztatuaren gehikuntzaren bidez finkatu gabeko hiri-lurzoru gisa kategorizatzea.

Donostia, 2021ko Ekaina.

**Fdo : Mikel Arrillaga Mayoz.**
**Arkitektoa.**

**Fdo : Jon Orue-Etxebarria Iturri**
**Abokatua.**